

Bazen behin, bada gaur

Bazen behin auzo txiki bat, hiri txiki baten eta erreka lehor baten magalean bizi zena. Aspaldidanik, dirugileak izeneko talde batek agintzen zuen munduan. Dirugileek pertsonen lana behar zuten dirua egiteko, eta horrela sortu zen auzoa, hiriko lantegietara etorritako familiekin. Produktuak ekoiztearen truke langileei soldata ematen zitzairen, eta soldata hori atzera euren egindako produktuak erosteko erabiltzen zuten, benetan ekoizteak balio zuena baino dezente garestiago. Hori zen dirugileek dirua pilatzeko zuten bidea. Denboraren joanarekin, alabaina, dirugileek mauka berria topatu zuten: poltsikoak betetzeko modu errazena etxeak salerostea bihurtu zen. Neurrigabeko sektore bat bazen, hura etxebizitzarena zen. Orduan, dirugileek ikusi zuten auzoa hustea zela errentagarriena, bertan garesti salduko ziren etxe berriak egin ahal izateko. Eta auzoa ia hutsik utzi zuten.

Diru-goseak ez zuen mugarik. Etxebizitzaren prezioek gora eta gora jarraitzen zuten. Jendeak etxeak erosteko dirurik ez zuenez, dirua ere saldu egiten zitzairen, bizi artean diru hori ordaintzen egotearen baldintzapean. Baina une batetik aurrera askok ez zuen zorra ordaintzeko adina diru, eta eraikitako sistema osoak eztanda egin zuen. Eztanda horren harira, auzoan egitekoak ziren proiektuak etenda geratu ziren.

Egoeraren krudela berriro ere langileek ordaindu zuten, soldatak murriztu zitzaizkien, lantegi asko itxi eta beste batzuk tokiz aldatu zituzten. Jendeak ezin zuen lanik topatu ezta etxerik eskuratu ere. Herritar guztiei esaten zitzairen ez zegoela beste biderik, euren helburua kosta ahala kosta lana topatzea izan behar zuela, miseria baten truke bazen ere, eta gero etxea lortzeko sorgin-gurpilean berriro jaustea, bizi arteko zorra hartuta.



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Erakunde publikoetako kudeatzaile askok espazio aske eta autogestionatuekiko duten ezinikusia ez da kontu berria. Eta honako galdera egin beharko genuke: zergatik egiten zaizkie horrelako proiektuak hain deseroso?

Orduan abiatu zen auzogileen ekimena. Ez zuten sinesten bizimodua antolatzeko era bakarra dirugileek markatutako hura zenik, eta bizigabe utzitako auzoko etxeetan sartu ziren. Elkarlanean sinesten zuten, eta bazekiten banaka gutxi batzuk baziren ere, elkarri lagunduta beste modu batean biziraun zezaketela. Euren lanari esker, auzoa birmoldatzen eta beharrezkoak zituzten gauzak ekoizten joan ziren pixkanaka. Erakutsi zuten bazela gauzak egiteko beste modu bat, justuagoa, pertsonen ongizateari eta euren arteko berdintasunari begiratzeko ziona eta ez diruari. Eta hutsik geratutako auzoari bizi berria eman zioten, dirugileen sistema ankerretik at. Hasieran hamar zirenak, hoxe bilakatu ziren, eta gero ehun, eta proiektua hazten eta hazten joan zen, eta auzolanean zoriontsu bizi izan ziren urte luzez.

“Eta hala bazan ala ez bazan... Ez, ez zan”. Umeei kapitalismoa azaltzeko eta esperantzarako izpia emateko ipuin polita izan zitekeen aurreko hori, Errekaleor auzoko egoera eta Gasteizko Udalaren asmoak ezagutuko ez bagenitu. Erakunde publikoetako kudeatzaile askok espazio aske eta autogestionatuekiko duten ezinikusia ez da kontu berria. Eta honako galdera egin beharko genuke: zergatik egiten zaizkie horrelako proiektuak hain deseroso?

Nik funtzio publikoa ulertzen dudan moduan behintzat, ordezkari publikoek harro egon beharko lukete euren herri edo auzoetan horrelako dinamikak pizteaz, eta horien bidelagun izan beharko lirateke, ez etsai. Interes espekulatiiboak alde batera utzita, agian erakunde horien mugak ageriko egiten dituztelako izango da, askoz baliabide gutxiago edukita, borondate eta elkarlan hutsez, funtzio publikoaren hutsuneak betetzen baitituzte bertan sortzen diren egitasmo askok. Bazen behin, bada gaur:

Errekaleor bizirik! ■